Eskubide eta betebeharren gutuna

Irakurketa Errazera egokitua.

2026ko iraila.

Autismo Bizkaia

Dokumentuaren izenburua:

Eskubide eta betebeharren gutuna.

Lehen argitalpena:

2026ko iraila.

Gutunaren egilea:

Apnabi Autismo Bizkaia.

Irakurketa errazera egokitzea eta balioztatzea:

ErrazTEA irisgarritasun kognitiboaren zerbitzua.

.

© Europa irakurketa erraza: Inclusion Europe.
Informazioa gehiago www.easy-to-read.eu

© ErrazTEA www.erraztea.apnabi.eus

Irakurketa erraza idazteko teknika bat da, irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonei ulermena errazten diena.

Aurkibidea

Zer da dokumentu hau?	4. orrialdea
Autismoa duten pertsonen eskubideak eta betebeharrak	7. orrialdea
Familien eskubideak eta betebeharrak	10. orrialdea
Bazkideen eskubideak eta betebeharrak	12. orrialdea

Zer da dokumentu hau?

Dokumentu honek APNABIko pertsonen eskubideak
eta betebeharrak azaltzen ditu.

APNABI Bizkaiko autismoa duten pertsonen
familien elkartea da

Eskubide bat eska dezakezun zerbait da.
Inork ezin dizu eskubide bat kendu.

Betebehar bat egin behar duzun zerbait da.
Obligazio bat edo arau bat da.

Dokumentu hau pertsona hauentzat da:

- Autismoa duten eta zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak
- Autismoa duten pertsonen familiak.
- APNABIko bazkideak.

Zertarako balio du dokumentu honek?

Dokumentu honek balio du APNABIko pertsona guztiok
elkar errespetuz tratatzeko eta elkartean zer eska dezakegun
eta zer egin behar dugun jakiteko.

Zer informazio erabili da gutun hau egiteko?

Gutun hau egiteko hainbat dokumentu eta araututako informazioa erabili dugu.

1. APNABIren misioa, balioak eta printzipioak

APNABIk nahi du autismoa duten pertsona guztiek eta haien familiek kalitatezko bizi-proiektua izatea eta gainerako herritarrek bezala gizartean parte hartzea.

Horretarako, APNABIk hau nahi du:

- Pertsona guztiak errespetuz tratatzea.
- Pertsona guztiei aukera berdinak eskaintzea.
- Pertsona bakoitzaren iritzia entzutea, behar duenaren arabera laguntzeko.
- Elkarrekin taldean lan egitea, zintzotasunez eta gardentasunez .

2. APNABIren Estatutuak

APNABIren Estatutuak elkarteak nola funtzionatzen duen azaltzen duten arauak dira.

3. Pertsonen eskubideei buruzko legeak

Pertsonen eskubideei buruzko legeak desgaitasuna duten pertsonen eta APNABIren babesa jasotzen duten pertsonen eskubideak babesten laguntzen duten arauak dira.

- Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa.

- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta

  haien gizarteratzeari buruzko Lege Nagusia.

- Honako zerbitzu hauek erabiltzen dituzten pertsonen eskubide eta betebeharrei buruzko Euskadiko arauak:

  -Gizarte zerbitzuak.

  -Osasun zerbitzuak.

  -Hezkuntza zerbitzuak.

Autismoa duten pertsonen eskubideak eta betebeharrak

Zure eskubideak

Errespetuzko tratua

- Tratu ona jasotzeko eskubidea duzu.
- Inork ezin zaitu iraindu ezta txarto tratatu ere.
- Pertsonek zure adinaren arabera tratatu behar zaituzte.
- Zure gauzak hartzeko baimena eskatu behar dizute.
- Inork ezin zaitu txarto tratatu zure sexuagatik edo zure diruagatik. Ezta zure erlijioagatik edo zure ideiengatik ere.
- Argazkiak egin nahi badizkizute, baimena eskatu behar dizute.
- Bideoak grabatzeko ere baimena eskatu behar dizute.

Aukeratzeko askatasuna

- Zure bizitzari buruz erabakitzeko eskubidea duzu.
- Pentsatzen duzuna esateko eskubidea duzu.
- Zure iritzia emateko laguntza eska dezakezu.
- Ulertzeko erraza den informazioa jasotzeko eskubidea duzu.
- Laguntza bat onartzen duzun edo ez erabakitzeko eskubidea duzu.

Intimitatea eta segurtasuna

- Zure eremu pribatua izateko eskubidea duzu.
- Zure osasun-datuak eta historia pertsonala pribatuak dira.
- Apnabiko profesionalek ezin dute zure gauzei buruz hitz egin beste pertsona batzuekin.
- APNABIren zerbitzuetan seguru sentitzeko eskubidea duzu.

Informazioa eta defentsa

- Informazio argia jasotzeko eskubidea duzu.
- Zure eskubideak ezagutzeko eskubidea duzu.
- kexak aurkezteko eskubidea duzu zerbait gustatzen ez bazaizu.
- APNABIk zure kexei erantzun behar die.

Laguntza-plana

- Zuretzat pentsatutako laguntzak jasotzeko eskubidea duzu.
- Zure laguntza-plan pertsonalizatuan parte hartzeko eskubidea duzu.
  Plan hau dokumentu bat da.
  Planak azaltzen du zer laguntzak behar dituzun zure helburuak lortzeko.

Zerbitzuaren kalitatea

- Jardueretan parte hartzeko eskubidea duzu.
- Jardueretarako ideiak emateko eskubidea duzu.
- Langileak autismoan prestatuta egoteko eskubidea duzu.
- Ulertzeko errazak diren espazioak erabiltzeko eskubidea duzu.

Zure betebeharrak

Beste pertsonak errespetatzea

- Zure kideen eskubideak errespetatu behar dituzu.
- Profesionalen eskubideak errespetatu behar dituzu.
- Pertsona guztiak berdin tratatu behar dituzu.

Informazioa ematea

- Profesionalek eskatzen dizuten informazioa eman behar duzu.
  Horrela hobeto lagunduko dizute.
- Zure egoera aldatzen bada, abisatu behar duzu.

Arauak betetzea

- Zentroetako arauak ezagutu behar dituzu.
- Zentroetako arauak beti bete behar dituzu.
- Instalazioak eta materialak zaindu behar dituzu.
- Zerbitzuaren **kuota** ordaindu behar duzu, hala badagokizu.

  Kuota:
  Kuota elkarte bateko kide izateko edo jarduera bat egiteko ordaintzen duzun diru kopurua da.

- Zerbait txarto dabilela ikusten baduzu abisatu behar duzu.

Familien eskubideak eta betebeharrak

Familien eskubideak

- Familiek errespetuzko tratua jasotzeko eskubidea dute.
- Inork ezin ditu txarto tratatu inongo arrazoirengatik.
- Zerbitzuak beren beharretara egokitzeko eskubidea dute.
- Beren datuak sekretupean mantentzeko eskubidea dute.
- Beren iritzia emateko eskubidea dute.
- Interbentzio baterako beren baimena eman edo ez emateko eskubidea dute.
- Beti lehenago entzun behar zaio autismoa duen pertsonari.
- Beren senideari buruzko informazio argia jasotzeko eskubidea dute.
- Kexak aurkezteko eta erantzuna jasotzeko eskubidea dute.
- Kalitate oneko zerbitzuak izateko eskubidea dute.

Familien betebeharrak

- Familiek errespetuz tratatu behar dituzte langileak.
- Zentroko beste pertsona batzuk errespetuz tratatu behar dituzte.
- Ez dituzte haientzat mesede berezirik eskatu behar.
- Autismoa duen pertsonari buruzko beharrezko informazioa eman behar dute.
- Zerbitzuaren kuotak ordaindu behar dituzte.
- Zentroak eta materialak zaindu behar dituzte.
- Funtzionamendu-arauak bete behar dituzte.
- Hobetu daitekeen zerbait badago, profesionalei esan behar diete.

Bazkideen eskubideak eta betebeharrak

Bazkide bat APNABIko kide bat da.
Bazkideek erabaki garrantzitsuak hartzen dituzte.
Erabakiak **Batzar Nagusian** hartzen dira.

Batzar Nagusia:
Batzar Nagusia elkarte bateko kideek gai garrantzitsuei buruz hitz egiteko eta erabakiak hartzeko egiten duten bilera da.

Bazkideen eskubideak

- APNABIren informazioa jasotzeko eskubidea dute.
- Bileretan parte hartzeko eskubidea dute.
- APNABIren arauak ezagutzeko eskubidea dute.
- Batzar Nagusietan botoa emateko eskubidea dute.
- Kexak edo proposamenak aurkezteko eskubidea dute.
- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko aurkezteko eskubidea dute.
- APNABIren eremu komunak erabiltzeko eskubidea dute.

Bazkideen betebeharrak

- APNABIren helburuak lortzeko elkarlanean aritu behar dute.
- APNABIren balioak defendatu behar dituzte.
- APNABIren bazkide-kuota ordaindu behar dute.
- APNABIren arauak bete behar dituzte.
- Bileretan bozkatu diren erabakiak errespetatu behar dituzte.